

Kontagintzari buruzko unibertsitate-ikerketak

(University research on narrative)

Toledo, Ana

Univ. de Deusto. Fac. de Humanidades. Mundaiz, 50.

20012 Donostia

BIBLID [1137-4454 (2002), 19; 83-100]

Euskal kontagintzari buruzko kritika eta historia du aztergune. Kritikaren alorra muga jakin batzuen barnean garatzen da: doktoradutza-tesiek erabili dituzten eredu metodologikoak eta eredu hauen euskari teorikoak azaltzen ditu, beren aniztasuna agerian utziz. Historiaren barrutian, eleberraren diakroniaz jardun duten ikas-kuntzek, bilakaera ezaugarri literariotan oinarrituz eta gizartearekin edo/eta beste eleberrigintza batzuekin atze-manaz, planteatu dute ibilbide hori.

Giltza-Hitzak: Azterketa sinkronikoa. Azterketa diakronikoa. Egitura. Narratologia. Eredu semiologikoa. Harreraren Estetika. Testuinguru sozio-historikoa. Historia sozio-literarioa. Bilakaera. Aldia.

Crítica e historia de la narrativa vasca constituyen el campo de análisis de este trabajo. La crítica se desarrolla dentro de unos límites determinados: los modelos metodológicos utilizados por las tesis doctorales y los soportes teóricos de dichos modelos, quedando patente su pluralidad. En cuanto al marco histórico, son los estudios que se han ocupado de la diacronía de la novela, basándose en rasgos literarios evolutivos captándolos en relación con la sociedad y/o con otras novelísticas, los que han planteado este camino.

Palabras Clave: Estudio sincrónico. Estudio diacrónico. Estructura. Narratología. Modelo semiológico. Estética de la recepción. Contexto socio-histórico. Historia socio-literaria. Evolución. Período.

Critique et histoire du roman basque constituent le champ d'analyse de ce travail. La critique se déroule dans des limites déterminées: les modèles méthodologiques utilisés par les thèses doctorales et les supports théoriques de ces modèles, sa pluralité étant manifeste. En ce qui concerne le cadre historique, se sont les études qui se sont chargées de la diachronie du roman, en se basant sur des traits littéraires évolutifs, les captant en relation avec la société et/ou avec d'autres traits du roman, qui ont tracé ce chemin.

Mots Clés: Etude synchronique. Etude diachronique. Structure. Science du roman. Modèle sémiologique. Esthétique de la réception. Contexte socio-historique. Histoire socio-littéraire. Evolution. Période.

Euskal Kritikagintzari buruzko I Jardunaldi hauetarako prestatu den egitarauaren barnean kontagintzaz jardun duten unibertsitate-ikerketak mintzagai hartzeko unea da.

Izenburuak mugatzen du gaia: kontagintza aztergai izan duten unibertsitate-ikerketak. Hala ere, zuhurtzia ukitu batek eraginik edo, itxura batean behintzat, gaia zabalegia izan zitekeen usteak eta, zabalegia ez-ezik, errepikakorregia bihurtzeko arriskua atzemateak jardunaldi honi muga jakin batzuk jartzera eraman nau.

Gatozen bada aztergaia mugatzera: euskal kontagintzari buruzko unibertsitate-ikerketek erakusten duten nondik norakoa azaltzeko erabiliko ditugun langaiak eta langai hauetaz egingo den azterketa-modua. Edo bestela esanda, aztergaiaren objektu materiala eta formala mugatuz emango diogu hasiera gure eginkizunari.

Euskal kontagintzari buruzko unibertsitate-ikerketen barrutira hurbiltzean, lehen-lehenik, kritikaren alorrak emandako uzta jorratzeari ekingo diogu; hau da, kontaketa konkretuei buruz egindako ikerketen emaitzak arakatzeari. Kontaketa jakinen gainean egindako deskripzioek osatuko dute aztergaia, hain zuzen ere.

Deskripzio ororen oinarrian, adierazita edo adierazi gabe, eredu kritiko bat dago eta eredu kritiko hori literaturari buruzko ikuspegi baten gainean eraikitzen da. Eredu kritiko eta beronen azpian dagoen literaturari buruzko ikuspegiaren lerro nagusiak literatur teoria-kritiken historiaren barnean lekutuko dira. Beraz, euskal kontagintza aztertzeke erabili diren eredu kritikoak eta eredu kritiko hauen azpian dagoen literatura ulertzeko modua ekarriko dira jardunaldietara: kritika eta kritika hori burutzeko erabili den abiapuntu teorikoa. Hona bada aztergaia: zein den aplikatu den eredu kritikoa eta zeintzuk diren bere oinarri teorikoak. Erabilitako eredu kritikoek eta euskarri dituzten abiapuntu teorikoek, literatur gertaera konkretua azaltzeko dauzkaten ahalmen eta mugek osatuko dute azterketa; hots, eredu kritikoen argi-ilunak: zenbateraino diren gauza bere aztergaia, literatur idazlana, modu oso batez adierazteko. Maila honetan kokatuko da balorazioa, ez ordea, ereduaz egin den aplikazioan edo aplikazioari atera zaion etekinean. Beraz, epaiketa-maila eredura mugatuko da, ereduaz egin den erabilerara zabaldu gabe.

Alabaina, ez genuke hor amaitu nahi gure eginkizuna. Izan ere, maila sinkronikoko ikerketez jardun dugu bakar-bakarrik: idazle baten kontaketa bat, edo gehiago, edo guztiak, iker eremu bihurtzen duen azter moduz, hots, kritikaz. Badirudi, historiari ere tartea egin beharko litzaiokeela; kontagintzak burututako ibilbideaz diharduten azterketei, alegia. Ardatz diakronikotik euskal kontagintza aztertzeraz hurbildu diren ikaskuntzez ari gara, hain zuzen ere.

Honela bada, euskal kontagintzari buruzko kritika eta historia genituzke aztergai, hau da, euskal kontagintza geldiene eran aztertu dituzten ikerketak eta bere bilakaerari eskainitakoak.

Jardunaldi hauen izenburuko ikerketa hitzaren eremua mugatu ostean, gatozen bere adjektiboarena mugatzera: unibertsitarioa. Kritika unibertsitarioa litzateke aztergaia, ez Nouvelle Critique frantsesean hartzen duen zentzu osoan, kritika egiteko moduan, bai ordea, zatiren batean, kokagunean, hain zuzen ere: unibertsitatean egiten den ikerketa. Dena den, topagune horretatik ernetako ikaskuntza orori hemen tartea egiteari kalte gehiago atzematen genion mesede baino. Helburua ez baitugu ikusten ikaskuntza-zerrenda ahalik eta exhaustiboena hona ekartzean, baizik eta euskal kontagintzaren kritika-historiak nondik nora dabiltzan atzematean, argazki horren bidez beren iturri nagusienak ezagutzeko. Horregatik, egokiago irizten diogu erakuskari bat oinarri bezala hartzeari. Hala jokatu dugu, nahiz eta jakin erakuskarira jotzeak aukeraz irizpideak jartzea eskatzen duela. Unibertsitate-ikerketen barrutian azken urteotan landu den kritikaren erradiografia eskaintzeko bitartekorik egokienak tesiak izan daitezke. Bi arrazoiengatik gainera. Bata azterketarik monografikoenak izateagatik, bestea, euren izaera propioak abiapuntu metodologikoak ongi finkatuta edukitzea eskatzeagatik. Ikaskuntza orok modu inplizituan edo esplizituan azterbidea planteatu behar duen arren, eskakizunik estuenak eta zurrunenak tesiarenak dira.

Tesietan, ordea, ez da erraza euskal kontagintzaren bilakaeraren argazkirik aurkitzea. Bilakaera, historia dagoenean ere, osagarri gisa izango da eta inoiz ez aztergune legez.

Bestalde, aski da literaturari buruzko ikaskuntzek edo, zehazki, kontagintzari buruzkoek sortutako bibliografia begiratzea honakoa atzemateko: historiari ez duela erakarri azterlaria. Literaturaren teoria-kritikei edo kontagintzaren teoria-kritikei eskainitako ikaskuntzak historiari eskainitakoak baino askoz ugariagoak dira.

Azken urteotako azterlaria, oro har, ez da hain eroso sentitu, kontagintzaren bilakaeraren berri emateko, ardatz diakronikoan kokatu denean. Ez da euskal kontagintzaren azterlarien arazoa, zeinahi kontagintzetakoarena ez ezik, oro har literaturaren historiari heldu diotenena ere. Literaturari buruzko ikaskuntzak gaingiroki begiratzea aski da honako honetaz ohartzeko: zalantzaren harrak jota agertzen dela historia. Literaturari buruzko ikaskuntzetan kritika eta teoria nagusitu egiten zaizkio historiari, bai kopuruaren ikuspuntutik, bai azterlaria oinarri sendoagoekin sentitzen delako.

Euskal kontagintzak bultzatutako azterketetan ere, bilakaeraren berri ematen dutenak dira urrienak. Guk hona ekarriko ditugunak honako baldintza hauei egokitzen zaizkienak izango dira: eleberrigintzari soilik eskainitakoak (honenbestez, abiapuntutik bertatik bazterturik gelditzen dira euskal literaturaren historiak) eta euskal eleberrigintza sistema legez joaz, beronen barnean, gutxienez, aldiren bat aztergai hartzen dutenak, nahiz eta izenburuan historia hitza ez eraman.

Gaurko jardunaldiei mugak jarri ostean, gatozen bada, adierazitako markoaren barnean gaia jorratzera.

1. Kritika

Kausa-efektu harreman estu-estua ezartzerik ez dagoen arren, eragin bat behintzat aitortu behar zaio Euskal Filologiako ikasketak Unibertsitatera heltzeari eta euskal literaturari buruzko tesiak ugaltzeari. Honela, ikasketa horien abiaburutik (1976) urte batzuetara, zehazki, 1989an, euskal eleberrigintzari buruzko lehen bi tesiak defendatuko dira. Kasualitatea edo beste zirkuntantziaren bat bitarteko, kontua da egile berberaren eleberriak hartzen zituztela aztergai. Epaimahaiaren iragazia iragazten lehena Ana M. Toledoren *Domingo Agirreraren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa* izan zen; hila bete gutxira Sebastián García Trujilloren *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre* irakurri zen.

Nire azterlanaren helburua honela mugatzen nuen: “Agirrek idatziriko eleberrien deskripzio soila baino harago joan nahi da: nobela bakoitzak bere batasunean eta osotasunean eta bukatu zituen hiru eleberriek batera eratzen duten orobatasunaren bila, historiaren argitan eta garaiarekin elkarriketan, ikuspegi partzialak (...) eta intrintseko hutsak baino harago lekutz”¹.

Planteamendu honek azterketa sinkronikoa eta diakronikoa burutzeran eman ninduen. Azterketa sinkronikoak, batetik, Agirreraren eleberriak aztertzen zituen, bestetik, testu horiek sortu zireneko eta esanahidun bihurtu zireneko testuingurua. Honenbestez, testuen teoria eta komunikazio eta testuinguru literarioen teoria bat zuen abiapuntu.

Testuen teoriak, narratologia estrukturalistak kontaketa aztertzeke erabili dituen deskripzio-kategoriak langai hartuz, testu bakoitzaren konberjentzi puntuak atzematen zituen, isotopia bihurtuz deskripzio formalaren baterakuntza-indar eta esanahi-mundua sortuz doan atomo, esanahi-mundu horren faktore integratzaile. Azkenik, berbalditik semiotikarako jauzia burutuz, kontaketa-mailaren antolatzemodua bitarteko itxuratzen zen esanahi-maila azaldu nahi zuen.

Testuinguru literarioaren azterketak Agirreraren eleberrigintzaren koordena da propioak eta bereziak izan zitezkeenak mugatzea bilatzen zuen, koordena da propio horiek marko orokorraren barnean aurkeztuz. Hitz batean, testuinguru hurbilena abiapuntu, markoa zabaldu egiten zen.

Azterketa diakronikoaren jomuga testuinguru literarioarenak zuen berbera zen: Agirreraren eleberriak lekutu. Honela, aztergune zen Agirreraren eleberrigintza lehenaldiaren argitan eta etorkizunera lortutako proiektzioaren argitan ikus zitezkeen.

Ez bakarrik, bai ordea nagusiki, bi aztergunek eman zituzten Agirreraren eleberrigintza kokatzeko bitartekoak: hizkuntzak eta beronen erabilerak Euskal Herriko gizartean, batetik; kontagintzak burututako ibilbideak, bestetik.

1. TOLEDO LEZETA, A. M. (1989): *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 12. or.

Beraz, Agirrereren eleberrigintzaren azterketa erdigune eraikiz, eleberrigintza horren sorkuntza-baldintzen berri ematen zen eta gerora lortu zuten bizi-irau-penaren berri.

Oinarrian, literatura eta honen barnean kontagintza bere lege bereziak dituen barruti bezala jotzen da, baina gizarte-gertaera eta gertaera historikoa ere badela alboratu gabe.

Gatozen, bi alderdion arteko harremanak nola ezartzen diren azaltzera; izan ere, jakin badakigu literatur idazlana ezin dugula atzemanaldi berean bi ikuspuntu hauetatik. Edo bestela esanda, ezin hurbil gaitezkeela literatur testua aztertzeraldi berean bere lege bereziak dituen tramankulutzat eta gertaera sozio-historikotzat joaz. Ezin ditugu bi aurpegiokaldi berean hausnartu. Bata ala bestea hautatu beharra dago, deskodeketa-modu bat ala bestea².

Testua, Agirrereren eleberribakoitza lege berezien arabera funtzionatzen duen tramankulutzat hartuz, ikusgune honetatik atzeman da, azterbide semiologikoa bitarteko. Alegia, literatur idazlana zeinu autonomotzat joaz.

Semiotika edo semiologia zeinuen zientzia orokor moduan mugatu da; zeinu-sistemak aztertzen eta interpretatzen ditu. Hala, kritika semiologikoak zeinu autonomotzat joko du literatur idazlana eta bertan bi sistema semiotiko atzemango ditu: linguistikoa eta literarioa. Hizkuntz sistemako zeinuz eratua, berauen interpretazioak hizkuntz sistemako zeinuen esanahia gainditu egiten du. Azken batez, bere oinarri teorikoaren funtsa gisa honetan laburbil daiteke: literatur idazlanak zeinu-batasun egituratua aurkezten du eta, egituraketa horren bidez, hizkuntzaz harantz kokatzen den mezua igortzen du. Beraz, forma ematen dioten hizkuntz zeinuen esanahia gainditu egiten du.

Oinarritzko ideia hauekin literatur idazlanaren ikerketa semiologikoa praktikan modu desberdinetan egiten da, kritiko desberdinen artean. Hizpidea sortu duen tesian, *Domingo Agirrereren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa*, zentzuren bat sortzen duen lekutzat jo da testua, eleberria, istorioak testura eramateko modua, sustantzia formalizatzeke modua joaz, zentzu-sorketa horretarako bide.

Honenbestez, idazlanean bertan jartzen da arreta, bertan baitago ezaugarri bereizle baten eramaile den literatur zeinua: bere balioaniztasun semantikoa. Hizkuntz zeinuak denotaturikoan oin hartuz konnotaziorako jauzia burutzen da lekugune testualak hartzen duen eraketa bide.

2. "Si l'on pouvait additionner les perspectives et juxtaposer les méthodes pour arriver à une vérité totale, tout serait simple; si l'on pouvait, en superposant des structures partiellement cohérentes, prélevées à des niveaux significatifs différents, aboutir à une structure globale et à une cohérence entière, on pourrait charger une 'super-critique' de ce travail d'intégration. Malheureusement, il n'y a pas plus de super-critique qu'il n'y a de super-vision qui, en accolant les perspectives, finirait par percevoir les six côtés du cube à la fois". DOUBROVSKY, S. (1966) *Pourquoi la nouvelle critique. Critique et objectivité*, Mercure de France, 78-79 or.

Zeinahi eredu kritikok literatura ulertzeko moduren bat du abiapuntuan. Eredusmiologikoak literatur zeinua zeinu autonomotzat jotzen duenean, lokarri sendoak lotzen du literatur mintzairaren izaera izaera berezizat atzemanaz, literaturaren zientzia bat eraikitzea jomugatzat hartu zuten teoria kritikoeekin. Lehenik eta behin, errusiar formalismoarekin.

Argi eta garbi zuten literatur mintzairaren ezaugarri bereizleak mugatzeak, espekulazio hutsetik urrutiratuko zen bidea eskatzen zuela; bide hori, eguneroko mintzaira eta literatur mintzaira erkatuz gauzatu zen, honako emaitza honetara helduz: helburuak bereizten dituelarik, mintzaira standardaren arauak hautsiz hezurramitzen da literatur mintzaira; eguneroko mintzairatik desbideratu egiten da literatur mintzaira. Jomugak bereizten ditu bata eta bestea: mintzaira standardean komunikazioa eraginkorra izatea bilatzen da, hots, zerbait adieraztea eta adierazi nahi den hori hartzaileari helaraztea. Ondorioz, mezuaren alderdi desberdinak (fonikoa, morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa) xede horren menpe daude. Alabaina, komunikazioak helburu literarioa duenean, mezuaren alderdi desberdin horiek balio autonomoa dute, beren baitan dute balioa.

Errusiar formalistek mintzairaren erabilera literarioa gobernatzen duten printzipio unibertsalak aurkitu nahiko dituzte. Printzipio unibertsal horiek aurkitzeko modu bakarra idazlan konketuak aztertzea da, gertaera konketu hauek baititu agerpen-modutzat literaturak, eta ez besterik. Idazlan konketua, ordea, ez dute aztergai bere berezitasunean, hau da, gizabanako berezi baten agerpen singular moduan, baizik eta gisa bereko beste idazlan batzuekin komuneean lukeen hartan. Azken batez, metodo induktiboa erabiliz, sistema, eredu azaldu nahi da. Propp-ek, adibidez, ipuinaren morfologia aztertuko du. Azterketa horretan ez du jomugatzat ipuin batetik bestera aldatzen dena atzemaatea (fabulazioa, zirkunstantziak, ekintzak...) baizik eta aldagaitza dena: itxura desberdinen azpian funtzio berbera aurki daiteke. Funtzio horiek mugatu nahi ditu; hitz batean, eraikuntza narratiboaren joskera du aztergai.

Gisa honetan, literaturaren ikerketak ikerketa zientifikoa izateko planteatuta zeukan eragozpenetariko bat gainditzen da: literatur idazlanak zientziaren objektu izan daitezke, ez beren aldaera desberdinetan, baizik eta beren egitura egonkorretan, finkatuetan. Literaturaren ikerketa zientifikoa ez ditu objektutzat idazlanak beren itxura indibidualean, banakoan, bere azpian dauden egitura orokorretan baino.

Ikaskuntza-mota hauei estrukturalismoak jarraipena emango die. Estrukturalismoaren oinarrian sistemaren ideia dago; ordena edo egitura bat sumatzea da pentsamendu estrukturalistaren ezaugarria. Literatur idazlanari aplikatzen zaionean, berez, ikuspuntu edo perspektiba desberdinetatik atzeman daiteke ordena edo egitura hori (soziologikoa, psikologikoa...). Hitz-ore egitura legez joaz hurbildu diren ikerlarien eskutik ere, etorri dira sistemaren azterketak. Propp-ek urratutako bidea jarraituz, Greimasek, Bremondek, Genettek, Todorovek edo Barthesek kontaketa konketu guztien kanpo-erreferentzia moduan funtziona dezakeen eredu jartzea bilatu dute. Narratologia estrukturalistak kontaketa oro azaltzeko gai diren deskripzio-kategoria jakin eta mugatu batzuk ezarriko ditu.

Eredu semiologikoak gaindituko ditu formalismo-estrukturalismoen mugak, idazlana formara murriztu gabe, zentzu-sortzaile moduan ikusten duenean. Baina, gainditze honek ezin ezkuta ditzake beraiekiko zorrak, agerikoak direlako: batetik, joskeraren alderdia aztergai hartzean azaltzen da sendoen eredu semiologikoa eta ez hainbeste alderdi pragmatikoa arakatzean; bestetik, literaturaren ikuspegi substantzialista du euskarri.

Kritika semiologikoak literaturaren ikuspegi substantzialista du euskarri literatur mintzairaren izaera berezitik –bere balioaniztasun semantikoa– hurbiltzen delako literatur testura, errusiar formalismoak edo estrukturalismoak egin zuen bezala, mintzaira desbideratutzat edo funtzio poetikoa nagusi duen mintzairatzat jo zutenean. Bestalde, korronte hauek jada garatua zuten joskeraren alderdiaren azterketan agertzen da tinkoen.

Oinarri hauetatik burutu da Domingo Agirreraren eleberrien azterketa *Domingo Agirreraren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa* tesiari. Gune hau kokatzeko, ulertzeko, neurtzeko eginkizuna zuen testuinguruaz egindako ikerketak. Agirreraren eleberrigintza gizarte-gertaera eta gertaera historiko legeaz atzemateak eredu semiologikotik aztertutako eleberriak lekutzea zuen jomuga. Agirre euskal praktika testualaren barnean kokatzeko asmoari erantzuten zion testuinguruaren azterketak: Agirreraren eleberrigintza orainaldi batean lekutuz, lehenaldiaren eta geroaldiaren argitan atzematea bilatzen zen.

Urte berean, 1989an, Sebastián García Trujillok aurkezten duen *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre* tesiak, bi ikerketa-helburu nagusi ditu:

En primer lugar, el de *fijar las circunstancias externas socioculturales y personales* que posibilitaron y condicionaron la producción y divulgación literaria de la obra novelesca (en realidad de la obra literaria total) de Domingo de Aguirre, y, en segundo, el de *proceder a la descripción totalizadora de sus novelas costumbristas* a fin de, (...) poder reconstruir 'científicamente' (...) el entramado novelesco de *Kresala* y de *Garoa*, para desde ahí poder aventurar una interpretación no exclusiva, pero sí coherente y la más saturadora, de ambas novelas³.

Deskripzio-interpretazio horiek burutzeko “sin adscribirme, en principio, a escuela concreta alguna (...) quiero manifestar mi preferencia, en consonancia con una gran mayoría de los críticos modernos, por la *aproximación semiológica* al texto literario”⁴.

Beraz, Agirreraren ohiturazko eleberriak ditu aztergai, eredu semiologiko bat bide eta Agirreraren obra berau sortzen deneko testuinguruan atzeman nahi du. Planteamendu honetan ere, testua lege bereziek gobernatzen duten tramanku-

3. GARCIA TRUJILLO, S. (1993) *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, I, Editorial Desclée de Brouwer, Bilbo, 25. or.

4. GARCIA TRUJILLO, S. (1993) *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, II, Editorial Desclée de Brouwer, Bilbo, 14. or.

lutzat jotzen da eta ikusgune honetatik aztertzen. Testuinguruaren miaketatik eginiko ekarriaren helburua testu horiek sortzen direneko gizarde-baldintzen argitan kokatzea da.

Mari Jose Olaziregi Alustizak 1996an *Literatura eta irakurlea. Testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan* izenburuzat zeraman tesia aurkeztu zuen. Harreraren Estetikaren abiapuntu teorikoek eman diote nagusiki eredu metodologiko jakin baten arabera irakurle inplizitua aztertze-ko tresna, literaturaren soziologiak, berriz, irakurle esplizitua aztertze-koa. Honela, *Obabakoak* eta *Behi euskaldun baten memoriak* kontaketen barrena itxuratuz doan irakurle inplizitutik irakurle espliziturako jauzia burutzen da, testuek itxuratzen duten irakurletik irakurle errealerakoa, irakurle intratestualetik estratestualerakoa. Kontaketen azterketatik jalgi den irakurle inplizituaren erretratuak errealtate soziologikoan aurkitzen duen isla neurtzen da, bi irakurleen arteko eraketa egiten da.

Azterbidea berri samarra da, kritika semiologikoarena baino berriagoa. Kritikaren historiak erakusten duenez, kritikoak noizbehinka hartu du gogoa hartzaila-testua harremana eta hartzaila eraiki du hurbilpen-gune, baina mende honen bigarren erdi arte ez du lortu ez halako protagonismoa, ez halako euskarri metodologiko sendorik. Gure artean, berriz, XX. mendearen bigarren erdi honetan, eredu soziologiko, soziokritiko eta testu-deskripzio in-trintsekoa oinarri nagusi zuten ereduetatik erretako bibliografia euskaraz eskuratzeko modua izan badugu ere, euskaraz burututako tesi batean berri-berria da Harreraren Estetikaren abiapuntu teorikoak oinarri harturik egindako azterketa.

Ez da dudarik abiapuntu teoriko horien izateko arrazoiak. Jaussek publikoa indar historiko eta sorkuntzan kideztat jotzen duenean, azken batez, baieztatzen ari da literatur idazlana irakurketan gauzatzen dela, irakurleak idazkera pasiboa burutzen duela, idazlanean erantsiz aurkitu nahi duena eta kenduz aurkitu nahi ez duena. Ez da dudarik azterketa inmanente hutsek objektua aztertu behar-aren beharrez eta, harik eta azterketarik exhaustiboena egin behar horretan, alde batera utzi dutela, ez dutela erreparatu edo ez dutela erreparatu nahi izan testu- ra hurbiltzen den subjektuan eta, ezinbestez, subjektua da bere subjektibotasu- netik, bere esperientziatik, bere hizkuntzatik, bere askatasunetik, bere hezkun- tzatik, bere garaitik, bere mundutik... testua den objektu horretara hurbiltzen de- na. Objektuak, literatur idazlanak izaera objektiboa izango du, baina irakurketa- ren ekintzan hezuramaitzen da, idazkera pasiboa bide.

Ikuspuntu berri batetik dakusa literatur jarduera Harreraren Estetikak. Li- teratur testuaren izaera berezia abiapuntu teoriko izaki, testuaren eraketa er- digune izan duten eredu metodologikoen aurrean, testua-hartzaila harrema- nean kokatu du arretagunea: testuak eragindako efektu estetikoak du aztergu- ne Harreraren Estetikak.

Zalantzarik gabe, jauzi kualitatiboa atzematen da Harreraren Estetikaren planteamendu teorikoetan. Baina, planteamendu teoriko hauek praxian, azter-

ketan, behar beste ez garatu izana leporatzen zaie. M^a Jose Olaziregi bera heltzen da arazoez hitz egitera, Harreraren Estetikak azterketara igarotzean, abiapuntu teorikoetatik praxirako jauzia egitean sortzen dizkion arazoez, hain zuzen ere. Honela dio:

Arazoak sortzen direla diogu, irakurle implizituaren teoria testuen azterketa praktikora eramatean tresna metodologiko urriekin egiten dugulako topo. Irakurle implizituak bete behar dituen 'indeterminazio hutsuneak' tituluetara, kapitulu-amaieretara, pertsonaia edo ekintza-aldaketetara..., mugatzeak, edozein testu narratibok duen teknika aberastasunari bizkar ematea izango litza-tekeelako. Arazoak sortzen dira, bestalde, Iser-en bibliografian teoria honen praxia urria delako.

Hori horrela izanik, testu narratiboen beste baliabideekin batera, Irakurle implizituaren zehaztapena burutzeko (...) hainbat kritikatik egindako ekarpenaz baliatuko gara⁵.

Azken batez, M^a Jose Olaziregiren ikerketak, nola azterbidea planteatzean hala azterketa testuala burutzean, agerian uzten du testuaren eraketa arretagune izan zuten eredu metodologikoetatik literatur idazlanaren deskripziorako sortutako hainbat kategoriak, erabilgarri eta errentagarri izaten jarraitzen dutela irakurle implizitua aztertzeke.

Zalantzarik gabe, ikuspegi-aldaketak berebiziko garrantzia du. Ikuspegia ez da, inondik inora, aukera inozoa, erabat funtsezkoa baino. Hala ere, ikuspegi-aldaketak ez du nahitaez deuseztatu behar beste ikuspegi batetik landutako azterketa-bitarteko ororen erabilgarritasuna. Berez, hala gertatzen da M^a Jose Olaziregiren tesian. Ikuspegi-aldaketa oso modu grafikoan adierazten du Harreraren Estetikara egiten duen hurbilpen teoriko-metodologikoa: "‘Nola dago egina testua?’ galderari ‘Zein da baliabide tekniko horien helburua’ galdera kontrajarriko diogu"⁶. Baina baliabide tekniko horien helburuaren azterketak 'nola dago egina testua' galdetu zuten haiek berezitako hainbat deskripzio-kategoriak baliagarri izaten jarraitzen dutela erakusten du. Alegia, 'nola' horren azterketara, estrategia narratiboen deskripziora egitiko ekarriak maila batean baliagarri izaten segitzen du, norabide-aldaketa eta guzti.

Handik bi urtera, 1998an, Bernardo Atxagaren obra aztergai hartzen zuen beste doktorego-tesi bat defendatu zen. Ur Apalateguik *L'Évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ universel. Socioanalyse du pathos atxaguien*⁷ aurkeztu zuen. Idazlanaren eta berau sortzen deneko testuinguru soziologikoaren artean harremana

5. *Literatura eta irakurlea. Testu-estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*, EHU, Gasteiz, 1996, 32. or.

6. op. cit., 34. or.

7. Ikus APALATEGUI, U.: *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*, Recherche et documents Espagne, L'Harmattan, Paris, 2000.

dagoela du abiaburuko hipotesi⁸: Atxagaren idazlana euskal barruti literarioaren historiak galdetutakoari emandako erantzun estetiko-ideologikoa da. Plan-teamendu hau aurrera eramateko erantzunetik abiatzen da, hots, egileak testuan erabilitako formula estetiko-ideologikotik abiatzen da, jarraian erantzun hori sortarazi duen galdera berreraikitzeke testuinguru sozio-historikoan txertatuz, eta, berriro testura itzultzen da testuinguru sozio-historiko horren argitan interpretatzeko testu hori. Horra hor, hautatutako mintzaira kritikoa.

Literatur gertaera gizarte-gertaera eta gertaera historiko hutsa, edo gizarte-gertaera eta gertaera historikoa ere bazela, aspaldi atzeman zuten literaturari buruzko ikaskuntzek. Hau da, literatur idazlana, beste edozein giza sorkuntza bezala historiako une batean sortzen da, gizarte konkretu batean eta badu harremanik garai historikoarekin, garai horretako gizartearekin. Idazlearen irudimenaren produktu bada ere, prozesu sortzaile pertsonal baten emaitza bada ere, idazleak bizi duen gizarte-giroari loturik dago.

XIX. mendean Hipolito Taine kausengatik galdetzen hasi zen ezkerro, bide luzea egin dute eredu soziologikoei, batik bat marxismoaren esparruan, kausa-efektu harreman horiek konplexutasun handiago edo txikiagoarekin aurkeztuz, gehiago edo gutxiago jarriaz idazlana soziologiaren menpe. Alegia, efektua sortu duen kausaz galdetzen da, idazleak burututako obra eragin duen kausaz (testuinguru soziologikoa).

Kritikari eskainitako atal honi amaiera emateko, kontaketa jakinei buruz egindako azterketek aurkezten dituzten eredu metodologikoei emandako tartea bukatzeko, ondorioen azalpenari helduko diogu.

– Begi bistakoa da literatur testua oro har eta, honen barnean, kontagintza komunikazio-prozesua dela. Honenbestez, bada igorle bat (egilea), koordinada sozio-historiko jakin batzuetan, lege berezi batzuk gobernatzan duten testua burutzen duena, hartzaile bati zuzentzeko. Hala dela aitortzeak, ordea, ez du sortarazi prozesu hori aldi berean ikusiko duen eredu kritikorik. Bestela esanda, teoria-kritikek ez dute lortu super-ikuspegi bat duen eredu kritikorik. Kritikak, orain artekoan behintzat, nagusiki alderdiren bat atzematera mugatuz etsi behar izan du: ikuspegi bat hautatuz eta hautatutako ikuspegitik aztertuz. Horrela, kritikoak egilea-testua harremana hartu du ikusgune-ardatz, edo testua eta berau sortzen deneko gizartea harremana, edo testua-hartzailea harremana, edo aztergai duen testua gobernatzan duten lege bereziak bihurtu

8. “L’hypothèse fondamentale à partir de laquelle nous problématisons du **corpus** littéraire atxaguien est la suivante: nous postulons qu’il y a un lien entre l’esthétique du **pathos** chez l’auteur et le contexte sociologique dans lequel sa production littéraire voit le jour. Le texte est conçu comme une réponse esthétique-idéologique que l’auteur apporte à une question que l’Histoire du champ littéraire dans lequel il produit son oeuvre –l’état problématique du champ littéraire basque au moment où l’écrivain enclenche le processus créatif– lui pose. L’on part de la réponse (la formule esthétique-idéologique à laquelle l’auteur a abouti), du texte, donc, puis l’on reconstitue la question ayant motivé la réponse (par un travail de contextualisation socio-historique), pour revenir au texte et l’interpréter à la lueur de la toile de fond sur laquelle elle s’inscrit”. Université de Pau et des Pays de l’Adour. Centre Universitaire de Recherche Scientifique, Bayonne, 1998, 15. or.

ditu ikusgune-ardatz. XIX. mendean jada, kritika biografikoa, edo soziologikoa, edo inpresionista landu zen. Ardatzak XIX. mendeko kritikan bertan aurki daitezke. Baina, XX. mendean barrena ardatz horiek lantzeko bideak zabaldu egin dira. Zabaldu ez ezik, bitartekoetan asko jantzi dira. Bitartekoetan jauzi kualitatiboa ere egon dela esan daiteke.

– Euskal kontagintzari buruzko unibertsitate-ikerketetara etorritz, mintzagai izan diren tesietara, hain zuzen ere, ardatz gehientsuenetan kokatu direla ondoriozta daiteke. XX. mendearen bigarren erdian landu den eredu semiologikoa testuan eta bere lege berezietan du oinarri nagusia, alegia, testu-egituretan; Harreraren Estetikak, testua-hartzailea ardatzean lekutuz, hartzailea sorkuntzan kide dakusa, hartzailea baita testuen “hutsuneak” “betetzen” dituen, berau baita zentzua ematen diona testuari, modu konkretuan gauzatuz. Norabide soziologikoa, berriz, testua-gizarte harremanean lekutzen ditu bere eredu kritikoak. Honela bada, egilea-testua ardatzean kokatutako eredu kritikoaren gabezia bakarrik sumatzen dugu: egilearen psikologia (kontzientea edo inkontzientea) egileak sortutako testua harremanean kokatzen diren ereduena, hain zuzen ere. Kontutan hartuz kontagintzari buruzko kritikaz ari garela, ez guke harrigarritzat joko aipatu hutsunea: egilea-testua ardatzean lekututako eredu kritikoak poesiari gehiago aplikatu zaizkio, agian, ego psikologikoa-ego literarioa harremana aztertzea egokiagoztat edo, jo delako.

– Beraz, kantitatearen alorra saihestuz, alegia, kontagintza asko edo gutxi aztertzen den epaitzea saihestuz, egiten den asko edo gutxi horrek aniztasuna erakusten duela ondoriozta daiteke: ereduena, ikuspuntuaren koexistentzia erakusten du. XX. mendearen bigarren erdiak gure mugetatik at erakutsi duen ikuspuntuaren koexistentziaren isla da, bere apaltasunean.

2. Historia

Jardunaldi honen hasieran esaten zenez, XX. mendea ez da historiaren mendea izan; askoz gehiago izan da teoria-kritikena. Joera orokor honekin bat eginaz, euskal kontagintza aztergai hartu denean, saio gehiago egin da kritikaren alorrean, historiarenean baino.

Euskal kontagintzaren historiak emandako uzta jorratzen hasteko tenore honetan, kritikarenean erabilitako irizpide kronologikoa jarraitzeari iritzi diogu egokien; hots, ikaskuntzen argitalpen-urteari begiratzea. Hala, lehen-lehenik, Ibon Sarasolaren *Txillardegiren eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* aipa daiteke. Berez asmo kritiko bati gehiago erantzuten dio historia egiteko helburuari baino⁹. Hala ere, aipamena justifikatuta dagoelakoan gaude, hitzaurrean dioen beste zerbaitek iragar zezakeen bezala:

9. “Nere asmoa nobela bat ‘irakurtzen’ erakustea denez gero, kritika formalista bati lotu natzaio nere saiaeran, mende-haserako errusiarren eta gaurko neoforalisten lanetatik atera dudan irakaskuntzaz baliatuz. Txillardegiren eta Saizarbitoriaren orain arteko nobelen irakurketa bat egitera mugatu naiz, baina uste dut ez zaiola inori kostatuko hemen adierazten direnak beste nobelagileei hedatzea”. SARASOLA, I. (1975) *Txillardegiren eta Saizarbitoriaren Nobelagintza*, Krikelu, Donostia, 7. or.

Bi autoreok hautatu ditut nire ustez ziklo bat hersten eta beste bat irekitzen duten bi pauso dezisiboak direlako gerraondoko euskal nobelagintzan¹⁰.

Txillardegik ordu arte argitaratutako eleberri bakoitza eta Saizarbitoriak argitaratutako bakarra hartzen ditu aztergai, baina “ziklo bat hersten eta beste bat irekitzen” horrek bi eleberrigintza-moduak aurrez aurre jartzera darama, bataren eta bestearen eleberrigintza ulertzeko modua erkatuz, bata eta besteak erabilitako bitartekoak eta bitarteko hauen bidez adierazitako munduak alderatzera. Azken batez, bilakaeraren ideia jakin bat dago azpian, eta, honenbestez, historiarena. Harako errusiar formalisten forma berriak zaharra ordezkatzen du ikuspegia atzematen da. Eleberriaren elementu egituratzaileetan oinarrituz, forma zaharra (Txillardegirena) forma berriaz (Saizarbitoriarena) ordezkatzen dakusa Sarasolak.

Euskal eleberrigintzaren historia egitea bilatu zuen lehena Jesus M^a Lasagabaster irakaslea izan zen “Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak” argitaratzean 1981ean¹¹. Honako helburu hau izatea aitortzen du:

Honako azterketa edo hitzaldi honetan nahi duguna hau da, alegia: euskal nobelaren prozesu gizarte literarioa azpimarratu, bere lerro edo norabide orokor eta ezinbestekoak erakutsiaz; euskal nobelaren ardatzak izango dira, noski, hemen azaltzen saiatuko garena (sic); haien gainean euskal nobelagintzaren azterketaren oinarriak jar ditzakegu, ulergarri egin nahi baldin badugu ez bakarrik nobelari, nobela edo, batez ere, nobela-aldi bakoitza, baizik eta euskal nobelaren eboluzio-lege historiko eta sozialak¹².

Tituluak berak gizarte-kondaira iragartzen du eta azterketari ezarritako helburuetan norabide hori azpimarratzen du. Aurrerago, berriz, argi uzten du tesuetan bilakaeraren berri ematea behar-beharrezkoa dela, sinkronikoki aztertzeaz gainera diakronikoki ere aztertu behar direla. Ardatz diakroniko honetan “gizarte-historia” egitea planteatzen du: eleberria, idazlan literariotzat joaz, bere sorrera-garaiko euskal gizartearen ezaugarrien argitan atzematea. Azkenik, euskal eleberrigintzak eratzen duen sistema, sistema handi eta orokorragoen testuinguruan aztertzea proposatzen du. Honela bada, planteamenduak hiru hitz giltzarri ditu: literatura (zehazki, eleberria), historia (bilakaera), harremana (gizartearekin, beste sistema batzuekin)¹³. Bestela esanda: euskal eleberrigintzak taxutzen duen sistemaren historia, literatur terminotan egin, sistema

10. op. cit., 7.or.

11. Ikus, LASAGABASTER, J. M. (1981) *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak, 343-368. or.

12. op. cit., 343 or.

13. “Lehenik, literatur mota bat aztertzeo, bere maila historikoa kontutan hartu behar da, literatura ez baita testu autonomo zenbait elkarren ondoan pilatzea eta metatzea soil' soilik, baizik beren arteko elkar-harremanak dituzten textuen eboluzio, aurrerabide, aldakuntza eta jarraipena.

Horregatik, euskal-nobelaren azterketak behar duena hau da, noski: nobelariak, nobelak edo nobela-giroak sinkronikoki aztertzeaz gainera, euskal-nobelaren sistema, eta sistema horren azalpena eta adierazpena ematen diguten legeak, alegia, euskal-nobelaren historia finkatzea.

hori, bizilekutzat duen gizartearen argitan atzemanaz, eta beste hizkuntza batzuetako eleberrigintzek eratzten duten sistemetikiko harremanean kokatuz.

Zinez, oinarri hauei erantzuten die azterketak. Euskal/erdal nobelagintzen garapenaren arteko erkaketak agerian uzten du euskal eleberrigintzaren sorreraren berankortasuna, baita eleberrigintza honek eta besteek sorleku duten gizarte-baldintzetan dauden aldeak ere¹⁴.

“Harremana” ardatza ez ezik, “historia” ardatza jarraitzen du, literatur terminotan emanaz bilakaeraren berri: aldiak markatzen dira (“Euskal nobelaren lehenengo aldia: 1897-1957: ohiturazko nobelaren nagusitasuna”; “Euskal nobela modernoaren sorrera (1957 hasita...) eta aldi horiek irizpide literarioetan oinarritzen dira. Hala, mugarría ezartzera datorren irizpidea, koordinada narratiboei ematen zaien tratamenduak eta, tratamendu hori bitarteko, adierazten den mundu-ikuskerak eta esanahiak ezartzen du. Aldia mugatzeko irizpidea eleberrigintzaren aldaketan oinarritzen denez, ezaugarri literarioak ditu euskarri. Aldizkatzeko ez da jotzen irizpide politikotara edo soziologikotara, kasu, baizik eta eleberraren eraikuntza gobernatzen duten barne-legeetara. Aldi bakoitzak emandako uztaren azterketa orokor edo xeheagoak osatzen du “Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak” ikaskuntza.

Ildo nagusi beretik jo du Lasagabaster irakasleak *Antología de la narrativa vasca actual*i eginko sarreran¹⁵. Sarrera horretako atalen izenburuak begiratzear nahikoa da planteamenduaren lerro nagusiak atzemateko: “La renovación de la narrativa vasca: Txillardegí y Saizarbitoria”; “La búsqueda de ‘modelos’”; “Desarrollo de la moderna narrativa vasca”; “Lo lírico en la novela vasca moderna”. Atal hauen izenburuek adierazten dutenez, historia, literatura eta harremana, hitz giltzarrien gainean eraikitzen jarraitzen du euskal eleberrigintzaren ibilbidea. Historiaren ardatzean kokatzen da bilakaeraz diharduelako. Bilakaeraren berri emateko, berriz, irizpide literarioak ditu oinarri eta, halaber, euskal eleberrigintza beste eleberrigintza batzuen argitan aztertzen du: erka-

Horrezaz gain, ‘gizarte-historia’ deitzen dugu, ez ‘soziología’ soil-soilki. Gure azterketa literaturari, literatura den neurrian, egokitu nahi zaio; lan literarioa, ez soziologikoa, egitea dugu helburua, nahiz eta literatur-testoa bere gizarte-testu-inguruan begiratu behar izan; baina ez literatura bere osagaien artean gezatzeko.

Euskal-nobelaren ezaugarririk garrantzitsuenetako bat, erdaraz ‘atipicidad’ deritzana da, hain zuzen, beste literaturen nobelarekin ezin konparatzea.

Ezin dezakegu euskal-nobela azter, espainolezko edo frantsesezko nobelagintzatik abiada harturik; literario izan arren, oso sistema desberdinak dira; alegia, beren autonomia duten eta lege berezietan dagozkien sistemak.

Euskal-nobela bere baitatik eta barrendik aztertu behar da. Baina ez bakarka, sistema handi eta orokorragoen testu-inguruan baizik. Sistema horiek dira, bereziki, sozio-kulturala eta sozio-linguistikoa (346-347. or.).

14. “Beste literaturetan nobelaren desarroiluari laguntzen dioten gizarte-baldintza horiek, gure artean agertzen hasi dira, bakanka bada ere, hemeretzigarren mende-bukaeran; aldi honetan euskararen zabalkundea indartzen ari da eta euskarari edo euskal-kulturari buruzko albistari eta aldizkariak ere giroa honetan bultzada berria hartzen dute” (349. or.).

15. “Introducción a la narrativa vasca actual” in *Antología de la narrativa vasca actual*, Edicions del Mall, Barcelona, 1986, 11-43. or.

ketari tartea irekitzeaz gain, ibilbidean bereizten dituen aldiak markatzeko eta aldi bakoitzaren mugen barnean emandako garapena azaltzeko eleberraren elementu egituratzaileraren batera jotzen du.

Gotzon Garatek *Euskal elaberrien kondaira* egiteari ekin zion 1983an. Lehen liburukian zioenetik ondoriozta daitekeenez, aztergaia xehe-xehe jorratzeko asmoa zuen:

Elaberriak bana banaka aztertuko ditut. Zein metodologiaz baliatu? Ia denak aurkituko dituzu¹⁶.

Euskal eleberrigintzaren sorrera Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorean* (1898) jartzen du. Hala ere, "praktikotasunari begira Elizanbururen eta Azkueren ipuin luzetxo horiek ere aztertuko ditugu, euskal eleberrigintzaren lehen aitzindariak baitira"¹⁷ gaineratu ostean, berez, *Piarres Adame* (1888) eta *Bein da betiko* (1893) aztertuz ematen dio hasiera euskal eleberrigintzaren historiari. Testuon laburtasunean oinarritzen da aitzindaritzara eramateko arrazoia.

Euskal eleberrien banaka-banakako azterketan barneratu aurretik egiten dituen azalpenen artean, generoaren sorreraren berankortasuna aipatzen du: erkaketak agerian uzten duen ezaugarria da, jakina. Ezaugarri horri beste batzuk ere eransten dizkio, gizartearekin eta hizkuntzarekin harremanetan daudenak, hain zuzen ere. Beraz, Gotzon Garatek planteatzen duen historiak, euskal eleberrigintzaren sorrerako emaitzak behintzat, generoaren eraketa eta ibilbidea baldintzatu duten faktore sozio-historiko eta sozio-linguistikoen argitan ikusi nahi ditu.

Hiru aldi bereizten ditu¹⁸ 1969 urte arte. Ramon Saizarbitoriak *Egunero hasten delako* (1969) argitaratu ondoko eleberrigintzaren ikuspegi zehatzagoa ematea aurreragorako uzten du, aldi horren azterketara heltzen den garairako¹⁹. Lehen aldia (hasieratik 1946ra bitartekoa) mugatzean darabiltzan irizpideak eleberrriak burutzean erabilitako tekniketan eta eleberrigintza honi darion mundu-ikuskeran oinarritzen dira.

Nik neuk Txomin Agirreren eleberrigintza tesigai hartu nuenean, planteamenduak hala eskaturik, historiara jo beharra izan nuen: aipatu eleberrigintza historiaren argitan eta garaiarekin elkarrizketan atzeman nahi izanaren ondorio izan zen. Agirreren eleberrriak lekutu nahiak galdetutako eskakizuna zen;

16. *Euskal elaberrien kondaira (I). Euskal eleberrigintzaren hasera. Piarres Adame eta Bein da betiko*, Ediciones Mensajero, Bilbao, 1983, 9. or. Liburu ki honetaz gain beste bi argitaratu ditu, bata Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea* oinarri duena eta bestea egile beraren *Kresalari* eskainitakoa.

17. op. cit., 28. or.

18. "1. Haseratik 1946ra arteko eleberrriak; 2. 1946-1957ra arteko aldia; 3. 1957-69ra arteko eleberrigintza; 4. 1969tik aurrerako eleberrigintza", 35. or.

19. "Beste puntu bat ere agerikoa da. 1969tik aurrerako eleberrigintzan aldi eta idazle oso ezberdin daudela. Egia da. Guk ordea, praktikotasunari begira, oraingo zehaztu gabe utzi dugu eta aldi horretara heltzen garenean, ikuspegi zehatzago emango" (36. or.).

izan ere, aztergai nuen orainaldi hori, bere lehenaldiarekiko eta geroaldiarekiko neurtu nahi zen. Lehenaldia azaltzeko, euskal eleberrigintzaren aurre-historia dei daitekeenaz jarduteko, Agirreren aurretiko kontagintzaren historia burutzeko, ikuspegi sozio-literarioa erabili nuen. Baita Agirreren eleberrigintzaren ondorengoaz aritzeko ere, baina "literario" hori aurrekoan baino gehiago azpimarratuz eta alderdi soziala, berriz, gutxiago zabalduz.

Gatozen euskal eleberrigintzaren historiari eskainitako ikaskuntzen balantzea egitera, genero horren ibilbidea jorratu duten ikaskuntzek emandako uztaz atzemanaz, zenbait ondorio ateratzera.

– Indar gehiago edo gutxiagorekin, garapen handiago edo txikiagoarekin, *harremana* deitu dugun alderdia eraikuntza-euskarrietariko bat dute. Begi bistakoa da legezkoatasun osoa duela: dena delako obra gizarte konkretu batean, hizkuntza jakin batean eta idazlanez inguraturik jaiotzen da. Inguruko literaturetako idazlanekin harremanean atzemateak euskal eleberrigintzaren sorreraren berankortasuna eta anakronismoa agerian uzten duenez, –mende Erdiko ibilbidean zehar luzatuko den anakronismoa, gainera– ez da batere harrigarria gertaera honen kausengatik galdetu izana eta kausa horiek bereziki faktore sozio-historikoe-tan bilatu izana. Are gutxiago, eleberriaz dihardugunean, gizarte-bizitzari oso loturik bere ibilbidea burutu duen generoaz ari garenean, hain zuzen ere.

– Historia egiteak ibilbidea aztergai-ikuspuntua hartzea esan nahi du, ibilbide hori eraiki duten idazlanek katea nola osatzen duten azaltzeko asmoarekin. Aldiak berezi dira eta aldiak bereizteko irizpide literariotara jo da; hau da, aldi batetik beste batera igarotzea markatzen duen ezaugarria edo ezaugarriak eleberriari barneko zaizkion elementutan jarri dira. Honela, irizpide literarioak jarraituz aldien segida azaldu da: 1898 - 1957 - 1969 urteak euskal eleberrigintzaren ibilbideak eratzen duen katearen katebegi bihurtu dira, urte horietako bakoitzean kaleratzen den eleberriren batek dakartzan berrikuntzak bide. Gainera, ez da erraza izango data horietakoren bat mugitzea, eleberriaren egituratze-modua aldiak zehazteko irizpide gisa erabiltzen den neurrian. Ezin uka daiteke, aldi baten hasiera zehazteko data batera eta idazlan jakin baten izenburura jotzeak, konbentzioari asko zor diola. Dena den, aipatu urteetan argitaratzen diren eleberrietan bada nobedaderik. Urte horietako bakoitzak markatzen duen aldi batetik besterako tartean, hots, aldi bakoitzaren garapenean, ñabardurak, xehetasunak, sailkapenak... ezartzea edo eranstea galde dezake orain arte egindakoak, baita aldi berri bakoitzari hasiera ematen dion eleberriaren ekarria gehiago edo gutxiago azpimarratzea ere ... baina, nekez uka daiteke ordu arte ezagutzen zenaren gain datorren berrikuntza.

– Euskal eleberrigintzak 1969rarte egin duen ibilbidea ez da oso konplexua izan. Horregatik, sorreratik data horretarainoko eleberrigintzaren historia egiteak ez du planteatu arazo korapilotsurik, orain artekoan behintzat. Batetik, historia horiek aukera-irizpide nabarmenetara ez dute jo (ez ote litzateke iragazi batetik iragazi behar argitaratutako titulu-zerrenda?); bestetik, hausturak edo egituratze-moduaren aldaketak agerikoak izan dira.

Sorreratik 69rarteko eleberrigintzaren historien oinarrian ez da planteatzen aukera-irizpiderik. Arrazoa zera izan daiteke, euskal eleberrigintzaren emaitza urriek ez dutela leku-arazorik sortu; alegia, 69rarte argitaratutako eleberri guztien argitan historia hori burutzeak ez duela eragin neurritz kanpoko orrialde kopurua. Eleberrigintzak emandako uzta txikiaren ondorioz ez da leku-arazorik izan, ezta izango ere, nola eta eleberri bakoitzaren deskripzio oso xehea bitarteko ez den bideratzen historia hori. Dena den, aukeratzeak, argitaratutako eleberrien titulu-zerrenda iragazi batetik iragaztearen beharra sumatzeak, ez dio erantzuten leku-arazoaren irizpideari, balioarenari baino. Eleberrigintzaren historia batek argitaratutako eleberri guztiak barneratu behar ote litzuke ala epai estetiko bat bitarteko batzuk bakarrik? galderan balioaren irizpidea egokiagotzat jotzen da historiak planteatzean. Jakina, aukeratzeak irizpideak ezartzea eskatzen du eta, honenbestez, idazlanak baloratzea.

Begi bistakoa da berrikuntza edo nobedade nabarmenen gain eraiki direla euskal eleberrigintzaren aldiak. Ez hori bakarrik: aldi batetik beste baterako iraganbidea izenburu bakar batek, eleberri bakar batek markatzen du. Beraz, batetik, mende-erdi luzean egindako ibilbidean erakusten duen egitura-homogenotasunak eta, bestetik, hausturak edo aldaketak, 69rarte behintzat, anitzak ez izateak erraztu egin du bilakaera azaltzea.

– Euskal eleberrigintzaren historia egiteari ekin dion aztertzaileak, modu esplizituan edo inplizituan, lehen lerrotik bertatik, “atipicidad” hitzera jo du. Euskal eleberrigintza inguratzen duten literaturerako eleberrigintzarekin erkatzeak eskatu dio. XX. mendearen azken herenera arte iraun duen ezaugarria da. Orditik hona hasi da gutxitzen, gure egunetara hurbildu ahala galduz joateko. Beste modu batean esanda: hainbat faktore estraliterariok lagundurik (maila soziolinguistikokoak, linguistikokoak, sozialak eta abar) bide normalagoetan dabil euskal eleberria, egituraren ikuspuntutik begiratuta behintzat. Normalizazio-bideetan barrena geroz eta irmoago abiatze horrek, konplexuago bihurtu den ibilbide baten berri ematea galdetzen dio historiagileari; izan ere, heterogenotasuna “ordenatzea”, antolatzea eskatzen dio: eleberri-egitura desberdinen koexistentzia, belaunaldi desberdinen koexistentzia, eleberrigile beraren ibilbide desberdinak, haustura ikusgarrien desagertzea, tituluen ugaltzen nabarmena, eta abar.

Azken hogeita hamar urte hauetako eleberrigintzak burutu duen ibilbidea da gutxien “ordenatu” duguna. Urtealdi hauetan ezagutu duen bilakaeraren lerro nagusiak azaldu diren arren, bilakaera hori ez da erakutsi aurreko aldietakoa bezain xehe. Dena den, balorazio honek, zorionez, bizi-iraupen laburra izan dezake. M^a Jose Olaziregi irakasleak, esaterako, plazaratzean dauka *Un siglo de novela en euskera*²⁰, oraindik argitaragabe egoteagatik mintzagai hartu ez dena. Izenburuak berak adierazten duenez, euskal eleberrigintzaren historia osoa dakar. Osoa, bai, mende bateko historia baitu euskal eleberrigintzak.

20. Jardunaldien ostean argitara emana. Ikus, OLACIREGUI, M. J., “Un siglo de novela en euskara” in URQUIZU, P. (2000) *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, U.N.E.D.

Bukatzeko, eleberrigintzaren gainean burututako kritika zela eta, bere aniztasuna azpimarratzen genuen: eredu metodologiko desberdinetatik egingdako kritika atzeman dugu. Historian, berriz, metodologia-mailan, kritikan baino homogenotasun handiagoa nabarmentzen da. Historia, oro har, historia sozio-literario bezala planteatu da, testuak sortu ziren testuinguruan kokatuz eta testuon barne-ezaugarrietara joaz ibilbidearen berri emateko: eleberria egituratzeko modua oinarri hartuz, ezarri dira aldiak eta berauen garapena. Testuaren eraketan jarri da aldizkatzeko irizpidea. Zalantzarik gabe, beste ikuspegi batzuetatik burutu daiteke historia; esaterako, Harreraren Estetikaren ikuspegitik. Abiapuntu teoriko hau kritikaren alorrean erabili den arren, ez da hedatu historiaren esparrura. Beraz, bada zereginik. Aztergaia ez da agortu, ezta aztergaia ikuspegi desberdinetatik begiratzea ere.